



Giza eskubideei buruzko dokumentazio gida

**Arartekoaren Europako eta Nazioarteko
Gaien Bulegoa
2021eko urria**



**www.ararteko.eus
international@ararteko.eus**

SAKONTZEKO ETA IKERTZEKO: GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIO GIDA

Orrialde hauetan, eskura jartzen dizkizugu Interneten giza eskubideei buruz dokumentatzeko aurki ditzakezun hainbat baliabide. Zehatzago esanda, giza eskubideen arloan eskumena duten nazioarteko erakundeen jurisprudentzia, txostenak eta ebazpenak eskuratzea errazten duten datu-baseak eta beste dokumentu-baliabide batzuk dira. Erabiltzeko moduari buruzko azalpen laburrak ere ematen ditugu.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia

➤ **Jurisprudentziako laburpenak, gidak eta sintesiak**

Baliabide guztien gida gisa, GEEAk dokumentu hau egin du: “Giza Eskubideen Europako Auzitegia: jurisprudentzia bilatu eta ulertzea”. [Hemen](#) eskuragarri gaztelaniaz. Bertan, Auzitegiak berak bere webgunearen bidez bere jurisprudentzia aurkitu eta ezagutzeko eskura jartzen dituen baliabideak zehazten dira. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- [Fitxak gaika](#): Auzitegiaren kasu garrantzitsuenen bildumak, gai zehatzen arabera sailkatuta (ez hitzarmeneko artikuluen arabera), eguneratu egiten direnak eta zerrendatutako ebazpenen laburpen txiki bat dutenak. Nahikoa da fitxen izenburuak ikustea baten bat gaiari (informazioa bilatzen ari garen gaiari) dagokion jakiteko. Beharrezkoa da jakitea ez direla zehatzak, ez baitituzte gai jakin horri buruzko kasu guztiak zerrendatzen. Guztiak ingelesez eta frantsesez daude eskuragarri. Gaztelaniaz batzuk baino ez daude, oraingoz.
- [Fitxak herrialdeka](#): Auzitegiak herrialde bakoitzari buruz dituen kasurik nabarmenenak zerrendatzen dituzte, kasuan kasuko hitzarmeneko artikuluen arabera ordenatuta. Kontuan izan behar da ez direla zehatzak: ez dituzte herrialde horri buruz emandako epai guztiak zerrendatzen. Espainiari buruzko fitxa gaztelaniaz dago eskuragarri.
- [Jurisprudentzia-gidak](#): Artikulu zehatzei buruzko jurisprudentzia-azterlan zabalagoak dira, artikulu bakoitzari buruz emandako jurisprudentzia aztertzen dutenak; eta artikuluek beren elementuetan bereizten dituzte. Ingelesez daude eskuragarri, eta batzuk bakarrik gaztelaniaz. Eguneratu egiten dira.
- [Jurisprudentziari buruzko ikerketa-txostenak](#): Gaiei buruzkoak ere badira, ez artikuluei buruzkoak; eta analitikoagoak eta akademikoagoak dira. Ez dira eguneratzen.

- [HUDOC datu-basea](#): Aukera ematen du Auzitegiaren jurisprudentzia osoaren arteko bilaketak fintzeko, artikuluen eta beren atalen arabera, herrialdearen arabera edo gako-hitzen arabera. Auzitegiaren orrian, gida eta tutorialak daude, erabiltzeko moduari buruzkoak. Datu-basean, halaber, epaiei buruz egiten diren prentsa-oharrak eta laburpen ofizialak berreskura daitezke; aurkitutako epaia interesgarria ote den azkarrago argitzeko aukera ematen dute, osorik irakurri behar izan gabe.

➤ Blogak

Interneten badira GEEAren jurisprudentzia berriaz aipatzen duten akademikoen blogak edo akademikoen sareak. Sarrera horiek gai baterako lehen hurbilketa gisa balio dezakete; izan ere, oraintsuko kasuak aipatzen dituzte eta lotutako beste jurisprudentzia bat gehitzen dute iruzkinean. Gai jakin bati buruzko jurisprudentziaren ideia bat izaten laguntzen dute; edo ebazpen jakin batek esaten duenari buruzkoa, osorik kontsultatu behar izan gabe. Hona hemen horietako batzuk:

[Giza eskubideen bloga](#) (gaztelaniaz):

[Strasbourg Observers](#) (ingelesez):

[ECHR Blog](#) (ingelesez):

Giza Eskubideen Europako Batzordea

➤ Jurisprudentiako datu-basea

“[European Social Charter HUDOC](#)” datu-basean Gizarte Eskubideen Batzordeak eta Ministroen Batzordeak urteko txostenak gainbegiratzeko prozesuan ateratako ondorioak ageri dira, bai eta kexa kolektiboen prozeduran Gizarte Eskubideen Batzordeak emandako erabakiak ere.

- **Gainbegiratze-prozedurako ondorioek** puntu zehatz batean dauden hutsuneak adierazten dituzte, bai eta kasuan kasuko herrialdeari egin zaizkion gomendioak eta oharrak ere. Gutunaren interpretazioa finkatzen dute eta estatuak nahitaez bete beharrekoak dira; eta, barne-zuzenbidean eskatu edo betearazi ezin badira ere, legezko estandarra ezartzen dute.
- **Kexa kolektiboen prozeduran hartutako erabakiek** Gutuneko artikuluei buruzko doktrina eta interpretazioa finkatzen dituzte.

Datu-baseak aukera ematen du Gutuneko eraginpeko artikuluen eta herrialdearen arabera bilaketak egiteko. Dokumentuak ingelesez eta frantsesez daude eskuragarri.

[Fitxak herrialdearen arabera](#): Dokumentu horiek labur-labur laburbiltzen dute herrialde batek Gutunaren aplikazioari dagokionez duen egoera. Ministroen Batzordeak egindako

gainbegiratzearen azken ondorioak laburbiltzen dituzte, eta arazoak non dauden azkar ikusteko aukera ematen dute.

[Gutunaren digestua](#) Gutunaren iruzkin bat da, artikuluz artikulua egindakoa, kexa kolektiboen prozeduran batzordearen jurisprudentziatik abiatuta eta horrek gainbegiratze-prozeduran dituen ondorioetatik abiatuta egina. Oso baliagarria da xedapen bakoitzak zehazki zer esan nahi duen jakiteko lehen hurbilketa gisa eta jurisprudentzia garrantzitsua aurkitzeko. Ingelesez dago.

Europako Kontseilua

➤ **Itunak, gomendioak eta ebazpenak**

- Itunen bulegoa

Itunen Bulegoaren bidez, Europako Kontseiluaren barruan amaitutako [itunen zerrenda](#), horien testua eta berrespenen zerrenda eskura daitezke. Horrez gain, [bilatzaile](#) bat ere badago, arlo espezifikoetan zer itun dauden gaika bilatzeko aukera ematen duena. Beste [bilatzaile](#) batek, gainera, ituna Espainiak berretsi duen egiaztatzea ahalbidetzen du.

- Ministroen Batzordearen gomendioak eta ebazpenak

Ministroen Batzordearen gomendioak eta ebazpenak dira Europako Kontseiluaren zuzenbide ez-lotesle ("soft law") garrantzitsuena. [Bilatzaileak](#) ekintza horiek aurkitzeko aukera ematen du, dela izena edo erreferentzia-zenbakia edo data sartuta (zein diren jakinez gero), dela bilaketa irizpide metagarrien (hala nola dokumentu mota —gomendioa, ebazpena edo beste bat—, hizkuntza, gaia edo herrialdea) bidez finduta. Emaitzen zerrenda laburragoa da irizpide berriak gehitu ahala. Beraz, bilaketak "itsu-itsuan" egiteko balio du, aztertzen ari garen gaiari buruz zerbait dagoen edo ez ez dakigunean. Ingelesez eta frantsesez dago eskuragarri, eta dokumentuak ere bi hizkuntza horietan bakarrik daude.

- Parlamentu Biltzarraren gomendioak ebazpenak eta txostenak

Parlamentu Biltzarrak ere badu [bilatzaile](#) bat; bilaketa libreak egiteko aukera ematen du, bai eta dokumentu motaren, gaien eta daten arabera irizpideak murrizteagatiko bilaketak egiteko aukera ere. Ingelesez eta frantsesez dago eskuragarri, eta dokumentuak ere bi hizkuntza horietan bakarrik daude.

➤ **Gainbegiratze-erakunde espezializatuak**

- Torturaren Prebentziorako Batzordea

[Datu-baseak](#) aukera ematen du batzordeak gainbegiratu beharreko estatuei buruz aldi berean behin egiten dituen txostenak bilatzeko. Aukera ematen du herrialdearen, atxilotze-lekuaren, atxilotu-motaren edo gaien arabera iragazteko, eta bilaketa-irizpide horiek metatzeko. Horrez gain, batzordeak bere bisitetan garatu dituen eta urteko txostenetan jaso dituen legezko estandar orokorrak ere jasotzen ditu; aipaturikoak gaiaren, atxilotu-motaren eta atxiloketa-lekuen arabera bila daitezke. Dokumentuak ingelesez eta frantsesez daude eskuragarri.

- Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea

[Datu-baseak](#) aukera ematen du batzordeak gainbegiratu dituen estatuei buruz aldi berean behin egiten dituen txostenak bilatzeko. Herrialdearen, gainbegiratze-zikloaren eta hizkuntzaren arabera metatuta iragazteko aukera ematen du. Dokumentu batzuk gaztelaniaz daude eskuragarri. Batzordeak arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokari buruzko hainbat gai buruz emandako politikagomendio orokor guztiak ere eskuragarri daude.

- Gutxiengo Nazionalak Babesteko Esparru Hitzarmenaren Aholku Batzordea

[Datu-baseak](#) aukera ematen du batzordeak estatuek Esparru Hitzarmenaren arabera hartutako konpromisoak betetzeari buruz ematen dituen iritzia bilatzeko. Herrialde, gainbegiratze-ziklo, hitzarmeneko artikulua eta hizkuntzaren arabera (ingelesez eta frantsesez soilik) metatuta iragazteko aukera ematen du. Era berean, Ministroen Batzordeak Aholku Batzordearen iritzietatik abiatuta emandako ebazpenak jasotzen ditu, horiek baitira forma juridiko zehatzagoa ematen dutenak eta gomendio eran estatuek egin behar dutena adierazten dutenak.

- Emakumeen aurkako indarkeriari eta etxeko indarkeriari aurre egiteko Ekintzari buruzko Aditu Taldea (Istanbulgo Hitzarmena)

[Datu-baseak](#) aukera ematen du batzordeak estatu bakoitzari buruz egindako txostenak bilatzeko; bai eta herrialde, hizkuntza (ingelesez eta frantsesez soilik), ebaluazio-erronda, hartu eta argitaratu deneko data, hitzarmeneko artikulua, indarkeria-mota eta biktima-mota kontuan hartuta metatuta iragazteko ere. Estatu alderdien batzordeak aditu taldearen txostenetatik abiatuta estatu kideei helarazten dizkien gomendioak ere jasotzen ditu.

- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzetarako Europako Gutunaren Aditu Batzordea

[Web orrialdeak](#) Aditu Batzordearen txostenak eta Ministroen Batzordeak horietatik abiatuta emandako gomendioak herrialdez herrialde erraz eskuratzeko aukera ematen du.

- Lanzaroteko Hitzarmenaren Estatu Alderdien Batzordea

Batzordearen txostenak, hitzarmena herrialde ezberdinetan aplikatzeari eta hitzarmeneko artikuluen interpretazio-iritziei buruzkoak, [esteka honetan](#) daude eskuragarri, "Adopted documents" fitxan.

- Gizakien salerosketaren aurkako aditu taldea (GRETA)

Europako Kontseiluko Gizakien salerosketaren aurkako Ituna duten herrialdeen betetze-mailari buruzko txostenak, Espainiakoak barne, [hemen](#) daude eskuragarri.

➤ Nazio Batuetako giza eskubideen erakundeak

- NBEko Giza Eskubideen Batzordeen dokumentuen [datu-base orokorra](#)

Honako hauek bilatzeko balio du:

- Batzordeek estatuak aurkezten dituzten aldizkako txostenei buruz egindako azken oharrak. Estatuak itunetik eratorritako betebeharrak betetzearen inguruko ebaluazioa egiten dute, eta horiek betetzeko gomendioak ere ematen dituzte. Azken oharrak bilatzeko, lehenik eta behin, bilaketaren gai den estatua adierazten da; eta, ondoren, oharren bilaketarekin lotutako batzordea. Ondoren, dokumentu motaren arabera iragazten da. "Txostenak aurkezteko zikloarekin lotutako dokumentazioa" hautatu behar da dokumentu motaren araberrako sailkapenean, ezkerreko menuan. Eskuineko menuan, zerrenda bat irekiko da "Txostenak aurkezteko zikloarekin lotutako dokumentazioa" kategorian dauden dokumentu motekin. Kategoria horretan, "Azken oharrak" dago, eta haren laukitxoa markatzen da.
- Iruzkin orokorrak, batzordeen xedapenen interpretazio baimenduak direnak; estatuari gida bat emateko egiten dira, artikuluen ondoriozko betebeharren inguruan, eta banakako kasuetan beren jurisprudentzia gidatzeko ere balio dute. Iragazi egin daitezke, lehenik eta behin, iruzkinaren bilaketarekin lotutako batzordea hautatuz (hemen ez da herrialdeka bilatu behar, iruzkin orokorrak guztiei zuzentzen baitzaizkie).

Ondoren, dokumentu motan “Beste batzuk” hautatu behar da; eta ezkerreko menuan, “Iruzkin orokorra”.

Interfazea gaztelaniaz dago, baina dokumentuak gaztelaniaz soilik agertuko dira baldin eta hizkuntza horretan eskuragarri badaude. Bestela, ingelesez agertuko dira.

- Itunen Organoen [jurisprudentiako datu-basea](#)

NBEko Giza Eskubideen Batzordeek banakako kasuetan emandako irizpenak (“views”, ingelesez) bilatzeko aukera ematen du. Datu-baseak gako-hitzen, estatu demandatuaren, itunaren (eta itun bakoitzaren barruan, artikulua) arabera iragazteko aukera ematen du.

Datu-basea NBEko sei hizkuntza ofizialetan dago eskuragarri, eta hizkuntza horietako edozeinetan erabil daiteke. Hala ere, dokumentu guztiak ez daude hizkuntza guztietan. Lortzen diren emaitzek bilatzen den dokumentuaren bertsio linguistiko guztiak ematen dituzte, baina ez da beti bat gaztelaniaz egongo. Gako-hitzen bidezko bilaketa egiteko, hizkuntzarik seguruena ingelesa da, ia dokumentu guztiak hizkuntza horretan baitaude eskuragarri. Ingelesezko gako-hitzen bidez bila daiteke, interfazea gaztelaniaz egon arren.

Emaitzen zerrendak zerrendatzen duen irizpen bakoitzean ituneko zer artikuluk duten zerikusia adierazten du, bai eta kexaren gai nagusiak ere.

Jurisprudentiako datu-basea erabiltzeko jarraibideak eta aholkuak [hemen](#) daude eskuragarri.

- Giza Eskubideen Indize Unibertsala

Giza eskubideen aldeko NBEko Goi Komisarioaren Bulegoaren [beste datu-base bat](#) da. Bertan, NBEko Giza Eskubideen Kontseiluaren prozedura berezien txostenak aurki daitezke (errelatore bereziak, lantaldeak eta aditu independenteak), bai gai espezifikoiei buruzkoak, bai herrialde zehatzei buruzkoak, bere aginte-eremuaren arabera. Giza Eskubideen Kontseiluak Aldizkako Azterketa Unibertsalean herrialde bakoitzari egindako gomendioak ere jasotzen ditu.

Datu-baseak, halaber, NBEko giza eskubideen batzordeen azken oharrak jasotzen ditu, baina ez iruzkin orokorrak, ezta banakako kexei buruzko irizpenak ere. Beraz, batzordeentzat, hobe da aurreko datu-basea erabiltzea. Datu-base honek badu abantaila bat azken oharrei dagokienez: gainbegiratze-ziklo baten azken ohar guztiak biltzen dituen pdf txostena egin beharrean, oharrak eta gomendioak sortzen ditu, banan-banan, hizpide duten gaiaren izenburu adierazgarriarekin; eta, horrela, azkarrago aurkitu daitezke bilaketa egiten duen pertsonaren intereseko gaiari buruzkoak, dokumentu osoak berrikusi beharrik gabe (horiek emaitzen bidez ere eskura daitezke).

Bilaketa errazeko formulario bat eta bilaketa aurreratuko beste bat eskaintzen ditu. Bertan, modu metatuan iragaz daiteke, testu, data, gai eta NBEren mekanismo (aldizkako azterketa unibertsala, itunen organoa edo prozedura bereziak), eta eskualde eta herrialdearen arabera.

“Herrialdearen araberako laburpena” botoiaren bidez, berehala lortzen da, bilatzen den herrialdea bakarrik adierazita, datu-basean dauden NBEko organo guztietako herrialde horri buruzko dokumentu guztien zerrenda, ordena kronologikoaren arabera zerrendatuta.

Interfazea gaztelaniaz dago eskuragarri. Aurkitutako dokumentuak gaztelaniaz eskuragarri daudenean, hizkuntza horretan agertzen dira; bestela, ingelesez agertzen dira.

- **Albisteak**

Goi Komisarioaren Bulegoko [albiste-bilatzaile](#) bat dago, prentsa-oharrak eta -komunikatuak herrialde, NBEko erakunde, gai, albiste-mota eta dataren arabera metatuta bilatzeko aukera ematen duena. Eraitza prentsa-komunikatuak eta -oharrak dira; horiek laburpenak egiten dituzte, adibidez, itunen organo batek banakako kasu batean hartutako irizpenenak edo aldizkako txostenei buruzko azken oharrenak. Hurbilketa azkarragoa egiteko balio dezake, prentsa-komunikatuak laburragoak baitira eta funtsezkoena laburbiltzen baitute. Baina kontuan hartu behar da ekintza guztiek ez dutela prentsa-komunikatu bat sortu behar.

- **Beste dokumentu-baliabide batzuk**

Goi Komisarioaren Bulegoak hainbat eskubideri buruzko NBEren estandarrak biltzen dituzten [informazio-fitxak](#) egin ditu. Dokumentu luzeak dira; eta eskubide jakin baten alderdi desberdinak aztertzen dituzte, giza eskubideei buruzko itunen, batzordeen jurisprudentziaren eta NBEko hainbat organismok eta agentziak gai horri buruz emandako ebazpen eta gomendioen bidez. Gai sakontzea suposatzen dute; eta horrek ate asko ireki eta ideia asko eman ditzake. Gaztelaniaz daude eskuragarri.

[Edizio berezietako materialek](#) gai orokorragoak jorratzen dituzte, ez eskubide jakin bati lotutakoak, baizik eta egoera edo arazoekin lotutakoak (hala nola talde jakin batzuen giza eskubideekin edo gobernantzarekin eta giza eskubideekin lotutakoak). Azterlan luzeak dira, eta sakontzeko ere balio dute. Horietako batzuek gida praktikoak izateko bokazioa dute. Horiek ez daude beti gaztelaniaz.

[Politika-materialak eta material metodologikoak](#) gidaliburu praktikoak dira, batez ere estatuko agintariei zuzendutakoak, giza eskubideen aplikazio praktikoan laguntzeko; eta hainbat arazo jorratzen dituzte: genero-ikuspegia, migrazioa, espetxeak, desgaitasuna duten pertsonak... Batzuek eskuliburu itxura hartzen

dute, eta dokumentu luzeak dira. Haietatik gomendioak lor daitezke jarduteko modu zehatzei buruz, edo agintari publikoen jarduteko modu oso zehatzak baloratzeko moduei buruz. Gehienak gaztelaniaz daude eskuragarri.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

Justizia Auzitegiak bere jurisprudentzia hobeto ezagutzeko zenbait baliabide ere sortu ditu, eta jendearen eskura jarri ditu gaztelaniazko webgunean.

- [Fitxak gaika](#)

GEEAkoek bezala, Justizia Auzitegiak gai jakin bati buruz emandako jurisprudentzia bildu eta laburbiltzen dute, itunetako edo Oinarrizko Eskubideen Gutuneko artikuluen bidez definitu gabe. Oraingoz gutxi daude. Jurisprudentzia garrantzitsuena ezagutzeko eta horretan sakontzeko balio dute, luzera ertainekoak baitira.

- [Jurisprudentzia-errepertorioa](#)

Jurisprudentziaren sistematizazioa da, gaikako epigrafeen arabera egindakoa; eta horiek azpigaitan irekitzen dira. Politika sektorialak 4. atalean (barne-politika) daude; eta oinarrizko eskubideak, 1. atalean (Europar Batasuneko ordenamendu juridikoa). Azpigai bakoitzaren barruan, ebazpen judizial garrantzitsuak ageri dira, kronologikoki ordenatuta, gako-hitzekin eta laburpenarekin. Horrela, bada, tresnak balio du gai jakin bati buruzko jurisprudentzia bilatzeko eta azkar identifikatzeko ea jasotako ebazpenak garrantzitsuak diren ala ez, osorik irakurri behar izan gabe. Frantsesez baino ez dago eskuragarri.

- [Jurisprudentzia eta laburpenak biltzea](#)

EBJAren jurisprudentziaren bilduma (baita Auzitegi Orokorrena ere) online dago eskuragarri 2012. urtetik aurrera: https://curia.europa.eu/jcms/jcms/P_106311/es/

Online sarbide horri esker, epaiak urteka eta hilabeteka bila daitezke urte bakoitzaren barruan, karpeta eta azpikarpeten zuhaitz baten bidez. Aukeratutako hilabetearen azpikarpeta irekitzean, hilabete horretan hartutako ebazpen guztien zerrenda bat irekitzen da, hurrenkera kronologikoan, prozedura motari buruzko informazioarekin eta gako-hitzen zerrenda batekin gaia zeri buruzkoa zen jakiteko. Han daude, gainera, ebazpenaren testu osorako estekak, EurLex-en eta PDF formatuan.

2018ko abendura artea (hori barne), tresna honetan eskuragarri daude ebazpen laburpenak ere, haien arrazoibide garrantzitsuenak laburbiltzen dituztenak.

Ebazpenak, laburpenak eta gako-hitzak gaztelaniaz daude, gorago adierazitako estekan.

2011ko abendura arte, beharrezkoa da ebazpenak bilatzailearen bidez eskuratzea.

- Bilatzailea

[Bilaketa-formularioak](#) ebazpenak hainbat irizpideren arabera bilatzea ahalbidetzen du: organo judiziala, datak, EBko zuzenbidearekin eta zuzenbide nazionalarekin zerikusia duten xedapenak, prozedura mota, eta aldeen izena, besteak beste. Emaitzak ordenatzeko aukera ere ematen du.

- Prentsa-oharrak

Auzitegiko prentsa-zerbitzuak [prentsa-oharrak](#) egiten ditu, ebazpen baten edukiaren lehen ideia bat emateko, argudio nagusiak labur-labur laburbiltzen baitituzte. Gaztelaniaz daude eskuragarri. Oharrak hurrenkera kronologikoaren arabera ordenatuta daude, eta urtea besterik ezin da aukeratu; beraz, tresna honek data eta gaiaren izena aldeztatik jakinez gero baino ez du balio. Gaiaren arabera "itsu-itsuan" bilaketak egiteko, bilatzailea hobea da. Interesgarriak izan daitezkeen gaiak bilatzailean aurkitu ondoren, jurisprudentzia-bilketara joan eta han identifikatutako gaien laburpenak irakur daitezke; edo prentsa-oharrak badagoen bilatu, ebazpenaren gutxi gorabeherako ideia bat egin ahal izateko osorik irakurri behar izan gabe.

- Blogak

GEEAren kasuan bezala, badira Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia berariaz komentatzen duten blogak, hura ezagutzen eta ulertzen lagun dezaketanak.

[EU Law Live](#) (ingelesez) atari bat da blog bat baino gehiago; eta jurisprudentzia ez ezik, EBko Zuzenbidearen gaurkotasuna (oro har) ere aztertzen du.

[Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Zuzenbide Fakultateko bloga](#): Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren atalak EBJAren jurisprudentziari buruzko albisteak biltzen ditu.

➤ **EBko zuzenbidea eta EBko Oinarrizko Eskubideen Gutuna**

- EBko zuzenbidea, oro har

[EurLex](#) EBko erakunde arteko tresna da, bere zuzenbidea bilatu eta sistematizatzeko; eta EBko egintza juridiko garrantzitsuak identifikatzeko oso

baliagarriak izan daitezkeen aplikazio batzuk ditu, EBko zuzenbidea oso zabala eta konplexua baita.

- [Legeria-laburpena](#): Oso baliagarriak izan daitezke esku artean dugun gai bati buruzko EBko egintza juridikoak aurkitzeko, baldin eta gai horri buruz ez badakigu zehazki zein den EBko zuzenbidea. EBko egintza juridikoen azalpen laburrak dira eta espezializatu gabeko publiko bati zuzenduta daude; gaztelaniaz daude eskuragarri. Zuzentarauak, erregelamenduak eta erabakiak ez ezik, nazioarteko akordioak, batzordearen eta kontseiluaren gomendioak edo batzordearen komunikazioak ere barne hartzen dituzte. Eremu politikoen arabera antolatuta daude; eta eremu bakoitzaren barruan, azpigaien arabera oso modu sistematikoan, eta horrek asko errazten du bilaketaren zehaztasuna. Azalpenetan honako hauek jasotzen dira: egintza juridikorako esteka bat, egintza juridikoaren helburuak, haren funtsezko puntuak, noiz jarri den indarrean, aurrekariak, aldaketak, bertsio kontsolidatuak eta lotutako beste egintza juridiko batzuk.
- [Egintza juridikoen bilduma](#): Antzera, egintza juridikoak EBko politikar-erloen arabera taldekatzen ditu; eta azpikategoriatan sailkatzen ditu, bilaketa zehazten joateko. Azkenean eskaintzen dituen emaitzen zerrendek egintza juridikoetara bideratzen dute. Beraz, arlo jakin batean egintza juridikoak dauden eta zeintzuk diren jakiteko balio du, bai eta horietara iristeko ere.
- [Transposizio nazionalako neurrien bilatzailea](#): Tresna hau oso baliagarria izan daiteke EBko egintza juridiko jakin baten transposizio nazionala dagoen jakiteko, edo legeria nazional bat EBko zuzenbidearen transposizio-egintza den jakiteko. Gai hori funtsezkoa da EBko Oinarrizko Eskubideen Gutuna aplikagarria den ala ez jakiteko. Estekan, bilatzailea erabiltzeko jarraibideak daude.
- [Jurisprudentzia nazionalaren bilatzailea](#): EBko zuzenbideko egintza jakin batzuk edo organo judizialen jurisprudentzia jakin bat aipatu dituen jurisprudentzia nazionala aurkitzeko balio du. Beraz, baliagarria izango da Espainiako auzitegiek zuzentarau edo erregelamendu jakin batzuei buruz zer jurisprudentzia duten jakin nahi denean. Bilatzaileak bilaketa-datuak (zer egintza juridiko den, herrialdea eta auzitegiaren izena) sartzeko aukera ematen du.
- [Ikaskuntza elektronikoko modulua](#): EurLexek modulu bat eta tutorialak ere baditu, ahalik eta hobekien erabiltzen ikasteko.

- EBko Oinarrizko Eskubideen Gutuna

"[Charterpedia](#)" EBko Oinarrizko Eskubideen Agentziaren online baliabide bat da; horren bitartez, erraz eta azkar sartzen da, gaztelaniaz, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko artikuluei buruzko jurisprudentziara, bigarren mailako zuzenbideko eta barne-zuzenbideko egintzekin bat datozenetara, Justizia Auzitegiaren eta Gutunaren artikulua bakoitzarekin zerikusia duten auzitegi nazionalen jurisprudentziara eta harekin lotutako beste dokumentu-baliabide batzuetara.

"[Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren aplikazioa nazio-mailako arauak eta politikak egiteko orduan](#)" eskuliburua gaztelaniaz dago eskuragarri, eta jarraibideak ematen ditu zehazteko nazio-legeria noiz sartzen den Gutunaren aplikazio-eremuan 51. artikulua arabera; horren ondorioz, Gutuna izango da legeria nazional horrek bete beharko duen oinarrizko eskubideen kanona. Beraz, tresna baliagarriak dira kexaren xede den egoera bat Europar Batasuneko oinarrizko eskubideen argitan aztertu behar den zehazteko.

[Oinarrizko Eskubideen Agentziaren orrialde batean \(prestakuntzari buruzkoan\)](#), tresna praktikoa eta didaktikoa bat dago eskuragarri; kasu jakin batean, Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 51.1 artikulua arabera EBko Oinarrizko Eskubideak aplikagarriak diren zehazteko. Oraingoz, ingelesez baino ez dago eskuragarri. Sartzeko, kontu bat ireki behar da helbide elektronikoa, erabiltzaile-izen eta pasahitzarekin. Doakoa da.